



Prozedura / Procedimiento: Concesión de ayudas y subvenciones de actividades culturales / Concesión de ayudas y subvenciones de actividades culturales  
Esp.zk. / Nº expte: 2023/2-KULSUBV  
Gaia / Asunto: Concesión anual de subvenciones para asociaciones municipales culturales, en el ámbito de la cultura

**Indarrean dagoan aurrekontu ekitaldiaren barruan, kultur erakundeek urteko kultura ekintzak burutzeko Mungiako Udalak emongo dituan diru-laguntzak arautzeko deialdia. (2023)**

**1. artikulua- Dirulaguntzaren esparrua eta ildoak**

Kultura, gazteria eta euskera

1. Euskalduntzeko zein euskal kultura (betiko jaiak eta euskal tradizioak) zabaltzeko egitarauak
2. Ondokoakaz lotuta dagozan jarduerak: musika, antzerkia, dantza, artea, literatura eta euskal hizkuntza; bertsolaritza, historia, zinea, ikus-entzunezkoak eta komunikazioak.
3. Gure udalerriko historia edota kulturaren inguruko azterlanak egitea eta argitaratzea.
4. Ume eta gazteentzat prestatutako aisialdi egitarau hezitzaileak.
5. Animazino soziokulturaleko eta garapen komunitarioa indartzeko programak, batez bere ume eta gazteentzakoak.
6. Kultura-ondarea.
7. Herri tradizioak indarbarritzeko eta zabaltzeko proposamenak.
8. Kultura arloko beste jarduera batzuk.

**2. artikulua- Eskatzaileak**

1. Aurreko atalean aitaturako edozein jarduera Mungian burutu gura dauen edozein alkartek eskatu ahal izango dau dirulaguntza.
2. Proposatutako egitarauak burutzeko lehentasuna emongo jako Mungiari, edo behintzat, udalerriko honen garapen soziokulturalerako interesgarriak izan beharko dabe proiektuok.
3. Dirulaguntza jasoten daben alkarte guztiek laguntza emoten dauen erakundearen logoa jarri beharko dabe beti agirian antolatzen dabezan jarduera guztietan.
4. Alkarteek eta erakundeek irabazi asmo bakoak izan beharko dabe. Eusko Jaurlaritzako Alkarteen Erregistroan eta Mungiako Udalekoan izena emonda egon beharko dabe.

Egiaztapen-kode segurua:

14614112371105004012

Código Seguro Verificación:

Modu elektronikoa sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: <https://sede.mungia.eus/validacion>

Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en <https://sede.mungia.eus/validacion>





5. Alkarteek aurkezten dabezan programa edota jarduerak Mungia Udalaren urteko kultura-programen barruan txertatu behar dira, beraz, aldez aurretik adostu beharko dira programak erakunde horregaz, indarrean dagoan aurrekontu-ekitaldiaren barruan udalerrian eskainiko diran kultura-programa guztien arteko koordinazio egokia lortzeko.

### **3. artikulua- Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa**

1. Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasita. Eskabideak horretarako ezarritako eskari orokorra erabiliz aurkeztu beharko dira eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren Bulegoan (SAC-HAZ) aurkeztu beharko dira; edo, ezpabere, edo Udalaren egoitza elektronikoen bidez; beti bere, deialdiak jarritako epe barruan.
2. Eskabidea osatzeko ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da (dena den, jarduera-eremu bakoitzeko dokumentu zehatz gehiago eskatzea bere erabagi ahal izango da):
  - Eskabidea sinatu dauenaren NANaren fotokopia.
  - Dirulaguntzarako zehaztutako epearen barruan (urteko ekitaldia) garatuko diran jardueren memoria-proiektua.
  - Erakunde edo alkartearen organo eskudunak onartu dituan programa edota proiektuen deskribapena: lekua, eguna, ordua, ikusle kopuruaren aurreikuspena eta helburuak. Ekintza zehatz zein urteko ekintzen kasuan horreek gestionatzeko behar besteko denporeagaz aurkeztu beharko dira eskabideak. Dirulaguntza eskabideaz ganera, eskariaren gaia dan ekintza horreen izango dituan beharrezko tekniken azalpena aurkeztu beharko da (kale-etenak, mahaiak, astoak, kirol-pista, eszenatokia...); baita jarduera hori burutzeko beharrezkoak diran aseguru eta egiaztapen orijinalak (erantzukizun zibileko aseguruak, zirkulazio baimena eta abar).
  - Garatuko diran jardueren aurrekontu zehatza, kontzeptuka banatuta. Bertan diru-sarrerak (hor sartuko dira beste erakunde batzuetatik edo beste edonondik jasotakoak edo aurreikusitakoak bere) eta aurreikusitako gastuak zehatz beharko dira.
  - Beste sail, erakunde edo instituzioei eskatutako edota eurengandik jasotako dirulaguntzen ganeko zinpeko aitortzea.
  - Alkarteetako parte-hartzaile edo kide aktiboen zerrenda aurkeztu beharko da (izen-abizenak, NANA eta non dagozan erroldatuta) eta, egon badagoz, ganerako alkarte-kideena bere bai (izen-abizenak, NANA eta non dagozan erroldatuta); Alkartearen barruan talde bi horreek egon badagoz, bereiztu egin beharko dira zerrendetan.
  - Alkartearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia (ez bada beste urteren baten aurkeztu).



- Diruz laguntzeko eskatzen dan jarduera horregaz ezelango irabazi-asmorik ez dagoala ziurtatzen dauen zinpeko aitortpena (eskatzaileak eginda).
- Erakunde edo Alkartearen Estatutuak (beste urteren baten aurkeztu ez bada) eta estatutuotan aldaketaren bat egin bada, derrigorrez aurkeztu beharko dira (Zuzendaritza Batzordeko kideen aldaketak, egoitza sozialarena eta abar). Aldaketa horreek egiaztatu egin beharko dira, aldaketok onartu diran batzarreko aktearen kopia edo egiaztagiria aurkeztuta.
- Alkartea Eusko Jaurlaritzako Erregistro Orokorrean eta alkarteen udal-erregistroan izena emonda dagoala egiaztatzen dauen dokumentuaren fotokopia (ez bada beste urteren baten aurkeztu).
- Euskereak proiektu horretan daukan leku eta garrantziaren ganeko txostena.

Foru Ogasunagaz eta Gizarte Segurantzazko zorren ordainketetan egun dagoala ziurtatzen daben agiriak.

#### **4. artikulua: diruz lagundu leitekezan gastuak**

Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira, indarrean dagoan araudiaren arabera zuzen justifikatzen diranak eta beti bere diruz laguntzen dan ekintzaren eremukoak diranean zalantza barik, behar-beharrezkoak diranean eta horretarako ezarritako epearen barruan burutzen diranak.


Bidaiak, joan-etorriak, hoteletan egotea, catering eta ordezkariak gaiak, jatorduak eta antzekoetan, diruz lagundu dan programa edo jardureagaz lotura zuzena daukienak baino ez dira onartuko.

Bidaiak, joan-etorriak, hoteletan egotea, catering eta ordezkariak gaiak, jatorduak eta antzekoetan, diruz lagundu dan programa edo jardureagaz lotura zuzena daukienak baino ez dira onartuko; eta bakarrik hartuko dira kontuan Administrazio Publikoan dieta, ostatu, kilometroko prezio eta abar zehazteko ezarrita dagozan kopuruetaraino.

Dirulaguntzetarako Udalak egiten dauen deialdi hau eskatzaileek antolatuko dabena diruz laguntzeko edo osatzeko izango da, inoiz bere ez jarduera horreek burutzetik datzoan gastuak erabat ordaintzeko.

Organo eskudunak ahalmena izango dau aurkeztutako dokumentazioan agertzen dan informazioa egiaztatzeko eta jagokozan neurriak aplikatzeko, dokumentu horretako informazioak okerrak edo guztiz osotu bakoak badira.

Datu pertsonalen Babesaren ganekoa dan abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoak ezarritakoa beteteko, eskatzaileei zera jakinarazoten jake, eurek aurkeztutako dokumentazioan agertzen diran datuak ez dirala erabiliko oinarri honek arautzen daben urteko dirulaguntza deialdia esleitzeko baino.

Egiaztapen-kode segurua:	14614112371105004012	 Mungia geure ikurrek
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikoa sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a>		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a>		
3 / 7		



Eskabide-orriagaz batera aurkeztu beharreko dokumentazio osoa aurkeztu ezean edo eskabideak forma-akatsen bat euki ezker, eskatzaileari jakinarazi ostean 10 egun balioduneko epea emongo jako akats edo hutsok zuzentzeko.

### **5. artikulua- Balorazino-irizpideak**

Epaimahaia ondoko irizpideetan oinarrituko da dirulaguntzak emon eta banatzeko:

A) Aurkeztutako programen balorazino-irizpideak: Guztira 65 puntu emongo dira, era honetara banatuta:

a) Mungiako eremu kulturean garatuko dan programa edo proiektuaren interesa. 0 puntutik 25 puntura bitartean.

- Programearen konplexutasuna eta alkarteko kideek horri eskaintzen deusien dedikazioa (urtean zenbat ordu eta zenbat lagunek egiten daben, ikasketak, etenbako prestakuntza eta abar). 0 puntutik 10 puntura bitartean.
- Alkartearen jardunak daukan jasotzaile kopurua (puntuazinarik altuena onuradun gehien dituan erakundeari emongo jako, eta generako alkarteei puntuak emoteko bere irizpide bera erabiliko da). 0 puntutik 5 puntura bitartean.
- Herritarrei alkartearen jardueraren barri emoteko hartzen diran neurriak eta Udalagazko koordinazioa gai horretan. 0 puntutik 5 puntura bitartean.
- Programea jarduera-eremu zabalagoan sartzea eta Mungiako Udalak proposatzen dauen programazino soziokulturean txertatzea, horren truke aparteko dirurik jaso barik; jarduerok Udalagaz adostu beharko dira alde zuzenetik eta erakunde horren urteko jardueren egutegian txartatuta egon. Irizpide honen arabera emonaldi edo jarduera bakotzeko puntu 1 emongo jako alkarleari; gehienez 5 puntu.

b) Mungiako irudia kanpoan zabaltzeko (puntu 1 Mungiatik kanpo egiten dan emonaldi edo jarduera bakotzeko). 0 puntutik 5 puntura bitartean.

c) Programaren originaltasuna: Mungiako Udalak babesten dituan generako alkarteei lantzen dabezan proiektuen izakera berekoak ez diran ideia barriak baloratuko dira. 0 puntutik 5 puntura bitartean.

d) Programa edo proiektuaren aurkezpenaren zehaztasuna: helburuak, jarduerak, datak, nori zuzendutakoa dan, aurrekontuak, egin osteko ebaluaketa zein izango dan zehaztuta egotea. 0 puntutik 5 puntura bitartean.

e) Programa edo proiektu horrek euskal kultureagaz daukan loturea. 0 puntutik 10 puntura bitartean.

Egiaztapen-kode segurua:	14614112371105004012	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikoa sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a>		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a>		
4 / 7		



f) Jarduera edo proiektua garatzeko, antolakuntza- eta ekonomia-mailan egindako ahalegina: 0 puntutik 15 puntura bitartean.

- Alde ekonomikoari jagokonez, puntuazinarik altuena ahalegin ekonomikorik handiena (aurrekontuan) egin dauenari emongo jako. 0 puntutik 5 puntura bitartean.
- Alde estrukturalari jagokonez, puntuazinoarik altuena azpiegiturarik handiena behar dauenari emongo jako (giza-baliabideak,...). 0 puntutik 5 puntura bitartean.
- Finantzatzeko ahalegina (finantzatzeko beste iturri batzuk bilatu izana). Finantziazio osoa Udalak jartzen bada, 0 puntu; autofinantziazio-maila %1etik %20ra bitartekoa bada, 2 puntu; eta autofinantziazioa %20tik gorakoa bada, 5 puntu.

B) Alkartearen balorazioa Mungiako kultur eremuan daukan sustraitze-mailan oinarrituta. 0 puntutik 20 puntura bitartean.

- Erakundeak herrian daukan tradizioa (10 urtetik gorako tradizioa eta jarduna, 10 puntu; 5-10 urte bitarteko tradizioa eta jarduna, 5 puntu; 1-5 urte bitarteko tradizioa eta jarduna, puntu 1; urtebeteko antzinatasuna ez daukien alkarreok ezingo dabe ohiko dirulaguntza deialdi orokorretan eskaririk aurkeztu).
- Erakundeak daukan partehartzaile kopurua (kide aktiboak). Puntuazinarik altuena partehartzaile gehien dituan erakundeari emongo jako eta generako erakundeei puntuak emoteko bere irizpide bera erabiliko da. 0 puntutik 10 puntura bitartean.

C) Hizkuntza irizpideak kontuan hartzea. 0 puntutik 15 puntura bitartean.

- Proiektua euskera hutsean garatzen bada, 15 puntu.
- Proiektua ele bitan garatzen bada, 5 puntu.
- Proiektuan euskeraren erabilera aurreikusten ez bada, 0 puntu.

## **6. artikulua.- Instrukzioa eta Epaimahai kalifikatzailea**

1. Epaimahai kalifikatzailea ondoko kideek osotuko dabe: Mungiako Udaleko Kultura arloko zinegotziak, Kultura Arloko zuzendariak eta Mungiako Udaleko Teknikari koordinatzaileak.
2. Eskariak aurkezteko epea amaitu ostean, Epaimahai Kalifikatzailea eratuko da. Epaimahaiak ahalmena izango du diru-laguntzak emateko prozeduretan gertatzen diran gorabeherak eta erreklamazioak ebazteko, egokitzat jotzen dituan aurrekariak eta txostenak eskatzeko, eskabideak oinarrien arabera ebaluatzeko eta organo eskudunari emakida proposamenak igortzeko, beti bere, diru-laguntzen onuradunak eta laguntzetarako proposatutako kopurua adierazita.

Egiaztapen-kode segurua:	14614112371105004012	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikoa sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a>		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a>		
5 / 7		



3. Ebazpen proposamena era arrazoituan egingo da, Epaimahai Kalifikatzailearen aktan egongo da jasota eta eskatzaile baktxari emon jakozan meritu zehatzak argituko ditu.
4. Ez da entzunaldirik eskainiko interesdunek emondako alegazino eta frogetatik aparteko gertakaririk edo frogarik ez dagoanean prozeduran.

### **7. artikulua: beste dirulaguntza batzukazko bateragarritasuna**

Dirulaguntzen kopurua (ez bakarrik ezta beste dirulaguntza batzukaz batuta guztira ateraten dana) ezin izango da inoiz izan diruz laguntzen dan jardueraren kostea baino altuagoa.

### **8. artikulua.- Ebazpena**

1. Ebazpena emoteko organo eskuduna Mungiako Udaleko Ekonomia eta Finantzen Arloko zinegotzi arduraduna izango da. Ebazpen horrek bere barruan jasoko dau dirulaguntza emotenjaken eskatzaileen zerrendea, emoten dan zenbatzekoa zehaztuta; eta egon ezkerero, onartu ez diran eskabideen barri bere emongo dau.

2. Ebazpena emoteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, eskariak aurkezteko epea amaitzen danetik gora. Ebazpenaren jakinarazpena 10 eguneko epearen barruan egingo da, eta legez bidezkoak diran baliabideak azalduko dira bertan.

### **9. artikulua. Dirulaguntza publikoen justifikazioa**

1.- 60.000,00 €-tik beherako dirulaguntzetan “justifikazino kontu laburtua” aurkeztuko da, 38/2003 Legearen 75 artikuluan zehazten danari jarraituta, dirulaguntza jaso eta hurrengo urteko martiaren 31 baino lehen..

2.- “Justifikazino kontu laburtu” horretan, gitxienetik, ondoko informazioa agertuko da:

a) Jasotako diru-laguntza hori eman zenean ezarritako baldintzak bete egin direla egiaztatzen duen memoria. Memoria horretan egindako jardueren eta lortutako emaitzen berri eman beharko da.

b) Garatutako ekintzen kostearen memoria ekonomiko justifikatzailea; memoria horrek hau jasoko dau:

- Proiektuari inputatzen jakozan diru-sarrera eta-gastuen egoera.

- Gastu partida baktxerako, diruz lagundutako ekintzaren gastuen zerrenda sailkatua.

Egon ezkerero, memorian zehaztu egin beharko dira diruz lagundutako jarduera hori gauzatzeko lortu diran ganerako diru-sarrerak edo diru-laguntzak, baktxaren zenbatekoa eta jatorria adierazota.

c) Bidaiak, joan-etorriak, hoteletan egotea, catering eta ordezkariak gaiak, jatorduak eta antzekoetan, diruz lagundu dan jardureagaz lotura zuzena daukienak baino ez dira onartuko, eta justifikazinoan ez da onartuko programa



osoaren %25etik gorako diru-kopururik era horretako gastuetan. %25etik gorakoa ez da kontuan izango justifikagarriak diran gastu guztien baturan.

e) Ondokoak aurkeztu beharko dira diruz lagundu dan jarduera bakoitzeko: jarduera horri lotuta argitaratu diran esku-orri, kartel, liburu, bideo, CD-Rom eta antzekoen ale bana. Horreetan guztietan agertu beharko dau Mungia Udala logotipoak.

f) Justifikazinoan aurkezten dan dokumentazino guztiak izan beharko dau dirulaguntza emoten dan ekitaldi ekonomikoaren data (urte naturala).

3.- Emoten dauen organoak, dirulaguntza egoki aplikatu dala egiaztatzeko, egiaztatu egingo ditu egiaztagiria; eta horretarako eskatu egin ahal izango deutso onuradunari aztertu nahi dituan gastu egiaztagiri guztiak aurkeztu daizala.

4.- Legean edo Ordenantzan justifikatzeko ezarrita dagoana bete ezean, edo eskatzen dan baino era eskasagoan justifikatu ezker, Dirulaguntzak Arautzeko Udal Ordenantzan 25. artikuluan zehaztuta dagoanera joko da.

Justifikazino hori mungiako Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko da 2024ko martiaren 31 baino lehenago.

### **10. artikulua.- Aplikagarria dan araudia**

Dirulaguntzak emoteko prozeduran Dirulaguntzei buruzko zemendiaren 7ko 38/2003 Legean eta Dirulaguntzen ganeko Udal Ordenantzan ezarrita dagoanari jarraituko jako.

### **11. artikulua.- Diru kopuruak**

Guztira 10.500€ bideratuko dira 2023ko udal-aurrekontuko 43.33404.48101 partidaren kontura.

Erregimena: Norgehiagoka

Egiaztapen-kode segurua:	14614112371105004012	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikoa sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a> Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a>		
7 / 7		